

Kolpeak altzairu- kantoien aurka

Iriti Majuelo

Aurretik bere izena zenbait libururen itzulpenetan, BERRIA-ko zutabeetan zein zuzenketa-lanetan ikusi dugun arren, hau da Maialen Berasategi Catalanen estreinako lan propioa: *Eskuan beti zerbait*. Donostia Kultura IV. Poesia Saria irabazita, Balea Zuria argitaletxearen eskutik iritsi da gure eskuetara, azken lau urteotan beste zenbait poeta gazteren sorkuntzekin egin duten gisan.

Poemario laburra bezain intentsua da Berasategirena, igan-de arrats batean irakurri baina aste osorako *resaka* uzten duena. Nola zen ezinegonaz ari zen hura? Berriz irakurtzeko gogoa pizten duten poemak dira oro har, ez ulergaitzak direlako, beldurri ertzean uzten dizuten oihartzunari berriz heldu nahi diozualako baizik, ea besterik dakarren.

Ez da batere hasiera txarra lehen-dabiziko argitaratze batentzat.

Esango nuke hizkuntzarekiko segurtasunak eta kontrolak sostengatzen dituela poemok, begi kolpe bakar batez liburuaren tenperatura orokorra hartu nahian. Ukaezina da idazleak euskararen inguruan duen jakintza eta nabari da harekin egiten duela lan, sakonean. Halaber, ez du testua ukiezin bihurtzen, batzuetan ger-



'Eskuan beti zerbait'

Idazlea: Maialen Berasategi Catalan.
Argitaletxea: Balea Zuria.

ta daitekeenez, idazkera zainduak ez du irakurlearengandik urruntzen. Hizkuntza jasoa du, bai, baina erabilerari oso emana da, adierazkortasuna bilatzen du zuzentasan hertsia baino areago, eta horrek eragin zuzena du poemaren erritmoan eta estiloan. Aire freskoa nabari da lerroartean, zuzentzailearen lanetik askatzeko nahi bat, iparra galdu gabe. Bide horri tiraka, azpimarratzekoa da hitzak osatzeko ausardia, beharri ego-kitutako hizkuntza eraikitzeko lana, hiztegiaren menpe egon gabe sortzea. Hizkuntzaren erabilzaille xumeoi gogorazten digu erabilerak egiten duela lengoia.

Poema bilduma hau ume baten pauso biluzi ez-zaratatsuz hasten bada ere, laster agertzen dira lehen kolpeak altzairu-kantoien aurka. Lehendabiziko poemetan, *entzimeren* gainean edo *gotelearen* beste aldean sumatzen diren dardarak jartzen ditu agerian, seismo handirik sortu gabe baina. Ordea, indar zuzenagok interpelatu te hurrengoek irakurlea: *Heldu lepotik*, *Alaba txit helduarena*, *Algara*, *Desheredatuaren kantua*; ezin esan anbiguotasunean ari denik jolasean, zinez poema helduak dira, politikotasun handikoak, po-

etikotasuna ahaztu gabe. Begirada feminista sakon bat du idazleak, panfletoaren beharrik ez duena.

Era berean, irudi interesgarriak sortzen ditu zenbait poematan, besteak beste *Olagarroa amets*, *Iharrari* eta *Lepamoztuaren poza*, sarri umorerantz jotzen dutenak. Hala, ironiaren erabilera azpimarratu beharko litzateke Berasategiren idazkeran, zuku asko ateratzen dion baliabidea baita. Adibide zenbait aurki daitezke *Zirimiri*, *Lautarra gora-gora* edota *Amas-kariari* poematan, zeinetan gaien larritasunei arintasuna ematea lortzen duen, berriz ere bueltan ireki den arrakala ikusarazteko.

Agian ez du guztizko batasun bat, geratzen dira airean zenbait poema batetik besterako trantsizioan, baina gehiagoren gosez geratzen da bat, ikusteko nora duen, zein den sigi-sagatsu hasitako bidezidorrak hartuko duen norabidea; zer erakutsi nahi duen, inongo plaza nagusitara iritsi eta bere burua monumentu handienaren gisa erakusteko inolako beharrik ez duen ahotsak. Umilaren zalantza eta ziurtasunetan hobeto funtzionatzen baitu poesiak, egia boro-bilen zilegitasun aurre-ezarrian baino.



'EZ darbakarra'

Egilea: Marc-Uwe Kling. **Ilustratzailea:** Astrid Henn. **Argitaletxea:** Picarona.

Bihotz Basoan adarbakar polit bat jaio zen; denek maite zuten, baina hark ez zuen adarbakar gisa jokatzeko. EZ darbakar deitzen zioten, eta alde egin zuten. Entzun nahi ez zuen mapatxe bat, dena bost axola zitzaion txakur bat eta printzesa lotsagabe bat topatu zituen. Burugogorriaren lagun arteko gozamina.



'Kandinga lehoia'

Egilea: Boniface Ofofo. **Ilustratzailea:** Elisa Arguile. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.

Amets egiteko liburuak bil-dumatik dator kontakizun hau, Pamiela-Kalandrakaren eskutik. Istorioa, berriz, bantutarraren ahozko tradizioetik dator, Kamerun erdialdetik Hegoafrikara bitarteko oihaneko tributik, eta gizakiaren eta ingurunearen arteko harreman estua du langai.



'Fake'

Egilea: Donna Cooner. **Argitaletxea:** Desclée de Brouwer.

Sarean edonor izan zaitezke, ezta?». Galdera hori darama azpitu-tulutzat Donna Coonerren idatzitako eta gazteei zuzendutako eleberri honek; barruan, ha-maika gairen korapiloa: ospea, maitasuna, familia, klasismoa, autoestimua, itxura, sarean izen onari eustea...

Purrrut!

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Azal gogorretan bildutako liburu txikia da (17x17cm), 36 orrialde dituena, 6-8 urteko haurrak eskutan erraz ibiltzeko modukoa.

Kontaketa irudiaren eta testuaren bidez ematen denez, album ilustratua dela esango dugu. Orrialdeak hondo zurikoak dira, pertsonaia huts-hutsean erakusten dituztenak, testua komentziaren arabera goran, behean, edo orrialde osoan duelarik.

Hiru aktore agertzen dira guztira: Pitxin eta Potxon protagonistak, eta Sudurfin auzokoa.

Testua erraza da, lineala, astegun segidan antolatua, harri-dura eta jakin mina goraka dararamana aurrera egin ahala.


Ez gaitezen engaina, ordea, zeren sinpletasun ezaugarri hauek eraginkortasunez josten baitute

gidoi bihurria, botatzen diren eta botatzen ez diren puzkerren bidez.

Hain zuzen, esaten ez den eta dedukzioz igarri behar dugun horri tiraka, lortuko dugu jakitea zer gertatzen ari den Potxon puzkertiarekin.

Pitxin eta Potxon, barrukoa atera eta hor konpon!

Eskatologia beti da, nire iritziz, abiapuntu ona haurren plazera bilatzen dugunean.



'Pitxin eta Potxon'

Idazlea: Xuberoa Salanueva. **Ilustratzailea:** Aritz Irigoien. **Argitaletxea:** Denonartean.

Zolda

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Azal gogorreko liburu ertaina da (23x25cm), 32 orrialde dituena eta, kortesiazko hasiera eta amaierako orririk ezean, kontrazaleko barruko orria ere kontakizunaren parte duena.

Ez da liburu sailka-erraza: komikiaren bunbuiloak erabiltzen dira, baina binetarik ez; testuak kontakizunaren gidaritza darama, baina irudirik gabe hankamotza litzateke; eta alderantziz, albume-tako ilustrazioei dagokien ahalmen narratiboa irenduta agertzen da, aldian aldiko gag umoretsuak plazaratzeko baino ez.

Orrialde hondoak kolore masak dira, estetikoak diruditen irizpideen arabera.

Ilustrazioak sortzeko *mache* papera erabiltzeko mesede egiten dio lanari: irudiei bolumena eta dinamismoa eman zaie, eta ira-

kurlearekiko gertutasuna zein emozioa areagotu egiten dira.

Aktoreak hiru multzotan agertzen dira: Gorka protagonista eta ama, zikinkeria zomorroak, eta ikaskideak. Garrantzia ere ordena horretan dute.

Liburuaren helburua irakaspene da, garbitasunari buruzkoa; Gorka protagonistak, beldurra-aren eraginez, garbitzearen ontasuna zein den ikasiko du: zikina- ren zomorroek ez dute xaboa maite.



'Orka Kaputz eta bere zomorroak'

Idazlea eta ilustratzailea: Raquel Samitier. **Itzultzailea:** Etor Iraola. **Argitaletxea:** Denonartean.